



## ANTILLAKO HONDARTZAKO INGURUMENAREN KALITATE POLITIKA



**Orioko Udalak "ingurumenaren kalitatea"** kudeatzeko sistema bat jarriko du abian **Antillako hondartzan**, honako araudien arabera: Ingurumenaren Kudeaketaren **UNE-EN-ISO 14001:2004** araudia eta Kalitatearen Kudeaketaren **UNE-EN-ISO 9001:2008** araudia. Kudeaketa sistema horren helburuak hauek dira:

- ✓ **Bertako ekosistema babestea**
- ✓ **Inguru gaineko eraginak aurrezaintzea**
- ✓ **Hondartzaren garapen atxikigarria ziurtatzea**
- ✓ **Hondartzaren erabiltzaileen beharrak eta espektatibak asetzea**
- ✓ **Indarrean dauden lege eta araudiak betetzea**

**Orioko Udalak** hondartzaren ingurua eta natur balioak babestu nahi ditu, **ingurumenarekiko kalitatezko zerbitzu atxikigarria** eskainiz. Horretarako, honako konpromisoak hartzen ditu:

- **Legeria** eta , baita ere, hondartzaren jardunbide egokirako eskuratuta dauden bestelako konpromisoak **betetzen ziurtatzea**.
- **Ingurumenarekin zerikusia duten jarduerak etengabeko hobekuntza** nabarituko dutela bermatzea.
- Hondartzaren erabilera **ingurumenarekiko errespetuarekin** bateragarri egitea, baliabideak kudeatuz eta **kutsadura aurrezainduz**.
- Erabiltzaileen eskakizunak betetzea, **kalitatezko zerbitzua** eskainiz eta azpiegiturak egoki kudeatuz, erabiltzaile horiek aukera izan dezaten inguruaz gozatzeko irisgarritasun eta segurtasun baldintza egokitan.
- Erabiltzaileen **parte-hartze aktiboa** bultzatzea, beren ohar, kexa edo sujerentziak aintzakotzat hartuz.
- Ingurumenaren Kalitateari buruzko **formakuntza** ematea hondartzaren kudeaketaz arduratzen den langileriari, beren kontzientziazioa, sentsibilizazioa, inplikazioa eta parte-hartzea hobetzeko.
- Erakundearen eta erabiltzaileen **ingurumen-jarduera** hobetzea, informazioa zabalduz ingurumena babestearen garrantziaz.
- **Ingurumenaren kalitatea kudeatzeko politika hau hedatzea**, behar bezala irits dadin bai langileriarengana zein erabiltzaileengana eta kontratatutako enpresengana.

Konpromiso horiek betetzeko, **Orioko Udalak** ingurumenaren kalitatea lortzeko **helburuen programa** bat definituko du, **etengabeko hobekuntzaren** bidean, eta, programa horren baitan, aldian aldiko auditoriak egingo dira eta urtero emaitzak aztertuko dira.

**Orioko alkatea**

Orion, 2011ko uztailaren 4an